

BANDOA

COVID-19 gaixotasunaren ondorioz azken egunetan ikusitako hainbat egoerak bultzatuta, Areatzako Udalak honako hau jakinarazi nahi du:

Itxialdia eta etxean egon beharra oso gogorra egiten ari zaigu guztioi, eta askotan egoera oso latza bihur daiteke guztiontzat. Hala ere, hainbat bizilagunek agindutakoa errespetatzeari uko egin diote eta **leku publikoetan ibili dira, besterik gabe denbora pasatzen.**

Horrelako egoerek gu denok arriskuan jartzeaz gain, itxialdia errespetatzen ari diren gainerako bizilagunekiko elkartasun falta itzela ere badira. Gogoan izan behar da gure artean oso pertsona zaurgarriak daudela, nagusiak, bestelako gaixotasunak dituztenak, etab. **Bizilagun batzuk kalera ateratzeak beste norbait larri gaixotzea ekar dezake.**

Gauzak horrela, Udalak berriz ere gogorarazi nahi du **etxetik ateratzea debekatuta dagoela**, benetako ezinbesteko kausak salbu. **Debekatuta dago leku publikoetara, pribatuetara zein espazio komunetara besterik gabe denbora pasatzera joatea, edota alferrikako joan-etorriak egitea.**

Horrenbestez, Udalak **herritar guzti-guztiei eskatzen die mesedez seriotasunez eta arduraz jokatzeko, egoeraren larritasunaz kontzientziatzeko eta etxean geratzeko.**

Areatzan, 2020ko apirilaren 16an



Asier García Artetxe

Areatzako alkatea